


luze-zabalean • luze-zabalean • luze-zabalean

# Lau Haizeta, zementuzko auzoentzako arnasa

.....

Plana erredaktatzen aurten bukatuko dute eta egokiera lanak hasi dira

Lau Haizeta Parkea 650.000 metro karratu baino gehiagoko berdegunea izango da, urbanistikoki zigortuenak izan diren auzoen artean. Orain arte gutxi zaindu izan den arren, proiektu honi esker, astialdi, kultur, kirol eta atsedengune egoikiak bihurtuko dira Ametzagaina, San Markos eta Lau Haizeta inguruko mendi eta zelaiaik.



Hiru udalerritako talde eta udalek bat egin dute 174.000 bat laguni berdegune bat eskaintzeko. Hau da, Donostiako Intxaurreondo, Altza, Martutene, Egia eta Loiola auzoak eta Astigarraga eta Erreterria udalerriak.

Altza, Intxaurreondo, Egia, Martutene, Loiola eta Larratxoko auzokideak inguruan hondatzen ari zen berdegune izugarri bat batera aprobetxatu gabe zeukatela ohartuta, Lau Haizeta natura parke bihurtzeko lanean hasi ziren.

Batipat, Donostiako ekialdea osatzen duten auzo hauek bizitza kalitate kaskarra dute zerbitzu, azpiegitura eta atsedengune naturalei dagokienez.

Etxe pilaketaren aurrean, Ametzagaina, Lau Haizeta eta San Markosen

astialdirako aukera ugari eskaintzen dituen gune natural hurbila daukagu. Natura aldetik aberatsa dugu, haritzak, gaztainondoak, lizarrak eta gizakiak landatutako hainbat eta hainbat landare mota biltzen dira bertan, eta historia aldetik ere badu bere garrantzia, besteak beste, gotorlekuak eta monumentu megalitikoak aurki baititzakegu.

Hala ere, zonalde hau izugarri hondatu da azken urteetan; kontrol gabeko zabortegei eta baratzak, harrobiak, industriak...

Hau dena eragotzi eta astialdi eta kirol ekintzak, kultur eskaintza, aterpetxeak, natura eskola, jardun botanikoa, e.a. izango dituen parkea egingo da.

Parkearen aurrerapena jadanik idatzita dago eta behin betiko plangintza-aren erredakzioa hasia dago, hala ere, plana egiten ari diren aldi berean, parkea egokitzen ari dira.

## Lau Haizeta Koordinakundea

Lau Haizeta inguruan bizi diren auzotarren artean bateratzeko beharra

sortu zen eta hirigune handi honi naturgune bat eskaintzeko asinotan lanean hasi ziren koordinakunde bat sortuz. Gogorlan egin behar izan dute ideia hau aurrera ateratzeko, eritzi desberdin asko bateratu eta instituzioetara proposamen zehatz batekin joateko.

Mikel Telletxea, koordinakundearen lehendakariak dioenez, «*instituzioetara jotzea ezinbestekoa zen, azken finean parkearen proiektua aurrera atera dezaketen bakarrak baitira. Bilera eta elka-*



Ametzagainako gotorlekua sasiz eta zikinkeriaz garbitu dute eta San Markoseko gotorlekua ere eraberritua dago.

rrizketa askoren ondoren, lortu genuen eskualde oso-arentzat birika izan zitekeen parke hau sortzeak zuen garrantziaz ohar zitezeten, auzo askoren irtenbidea baita». Azkenik, instituzioak eta koordinakundeak Lau Haizeta Parkeko hitzarmena sinatu zuten. Alderdi politiko guztiak ados agertu dira parke honen eraketarekin. Instituzioen arteko koordinazio ona azpimarratu du Santi Peñalba, Donostiako Plan Orokorreko teknikariak. «Parkea inguratzen duten hiru udalen eta Foru Aldundi eta Jaurlaritzaren artean oso ondo antolatuta dago gauzak, eta plana aurrera doa».

### Baserri giroa

Eremu honetan baserri ugari dago eta nekazal, abeltzaintza eta basoetako lanak garrantzi handia du. Parkearen garapenaren barruan oinarritzat jotzen dira. Honela, baserri ustiakuntzei custeko bestelako bizibide osaga-

riak eskain diezaizkieke parkeak baserriarrei.

Besteak beste, agroturismoa, labeldun produktioak edo nekazaritza ekologikoa bultzatzeko asmoa, parkearen proiektuaren barruan dago eta nahiz aktibitate hauek nahiz baserriko ohizko aktibitateak garatzeko laguntzak emango zaizkie baserriarrei, zonaldearen izaerari dagokion nekazal kutsuari eutsiz.

EDURNE OTAMENDI

## Hiri trepetak

**hau Donostia!**



Urtetik urtera espaloiak eta bideak petatxo betetzen dizkigute eta gero eta gehiago dira bidean zuzen ibili nahi dugunontzat saihestu beharreko trabak.



HARKAITZ CANO

Urtetik urtera trepeta urbano gehiago. Aurreko urteetan propaganda kabina pseudoinformatiboak eta seinale baldar handiegiak. Estetikoki itsusi besterik ez dute egiten eta ez diet praktikotasunik batera ikusten. Aurtengoan hondartza inguruan jarri dituzten traste urdin zatarrei egin diete tartea. «Hemen zaude» adierazten diguten bi metroko plastiko zati seinalizatzaileei. Horri deritza nonbait dirua kareletik botatzea. Nik uste dutxak non dauden jakin nahi duten turistei ez zaiela larregi kostatzen begirada hondarretik altxatu eta beren muturrak haraindi zer dagoen behatzea. Eta trepetekin jarraiki (behin hasiz gero) itsas trepetak ere aipa daitezke agian, zarataz badia kutsatzen duten itsas-motoak, udako pakearen hausle diren moto pelagikoak. Giza-trepetak edo pertsona-trastoak aipatzea falta zait, baina hori beste baterako utzi beharko dugu.

Hemen ez dugu Jupiterrera erori bide diren kometa puskatuen hondakinen beharrik, badugu lehendik sobera petatxo. Trepetak eta trepetak. Ezagun da Donostia pêtit Paris izendatu zutenek ez dutela egun hiria hartzen ari den piura ezagutzen.

## Eroski hipermerkatua aurrera doa

Ezaguna den bezala, Eroskik datorren hilabetean hipermerkatuaren eraiketa lanak hasi ahal izango ditu. Eraikuntzak 45.000 metro karratuko azalera izango du eta beste 90.000 metro karratu aparkalekuetarako erabiliko dira.

«Lau Haizeta Parkea» koordinakundeak proiektua aurreratu baino lehen, Udalak, Kutxak eta Eroskik hipermerkatua eraikitzeak akordioa lortu zuten.

Hasiera batean Intxaurren eta Alzako Auzo Elkarteek eraikuntza horren aurkako jarrera hartu bazuten ere, instituzioek, alderdi politikoek eta gainerako auzo elkarteek aurkako jarrerarik ez zutela agertu ikusita, bertan behera utzi zituzten beren nahiak.

Beraz, oinarritzakoa parkea egitea denez, eta Eroskik azalera osoaren %3,37 bakarrik hartuko duela kontutan hartuta, koordinakundearen helburua ahalik eta ingurugiro inpaktu txikiena izan dezan lortzea da. Horretarako, enpresarekin negoziatioak izan dituzte eta 200 milioi pezeta inguru inbertituko ditu enpresak inpaktua gutxitzeko aldaketetan.